

RETAk, Euskadin liderra den kirol-apustuen etxeak, www.retabet.es kaleratu du

Kirol-apustu presentzialen merkatuan lider izaten 4 urte eman ostean, RETAk onlineko ataria kaleratu du www.retabet.es webgunearen bidez. Horri esker, Eusko Jaurlaritzaren baimena duen eta online apustuak egin ditzakeen Euskadiko lehen enpresa bihurtu da.

Bilbo, 2012ko irailak 25.- RETA kirol-apustuen etxeak, kirol-apustu presentzialen merkatuan liderra denak eta aurtengorako 88 milioi euroko fakturazio-aurreikuspena duenak, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren baitako Hauteskundeen Administrazioaren, Jokoen eta Ikuskizunen Zuzendaritzak emandako baimena eskuratu du www.retabet.es webgunearen bidez Euskadin online lan egin ahal izateko bere atariaren bidez.

Webgunea irisgarri dago dagoeneko ordenagailutik, mugikorretik eta tabletetik eta lehen sarbidea Iphone batetik egin zuten.

RETAk 150 langile baino gehiago ditu eta onlineko baliabideetara jauzi egin du orain, jarduerari ekin zionetik lau urte igaro direnean. Kirol-apustuen lehen denda Bilboko Zazpi Kaleetan ireki zuten eta gaur egun kirol-apustueterako 16 denda espezifiko eta Euskadiko ostalaritzako establezimendu ugarritan dauden 500 salmenta-gune ditu. Gainera, 2010. urtetik, Nafarroako Foru Erkidegoan ere lanean ari da 4 denden eta ostalaritzako 180 terminalen bidez. Horri guztiari, gainera, aurtan, 2012an, Valentziako Komunitatean abian jarritako ibilbidea gehitu behar diogu. Komunitate horretan, gaur egun, 300 terminal ditu ostalaritzako lokaletan eta jokorako aretoetan banatuta eta, gainera, kirol-apustuak egiteko denda espezifikoa ere duela gutxi inauguratu dute Vila-Real udalerrian.

RETAk onlineko merkatuan lan egingo duen RETAbet.es kirol-apustuen orrialdea RETAko I+G+b sailak egin duen eguneroko lanaren ondorio izan da. Sektorean aurrekaria izango da eta erabilgarritasuna eta nabigarritasuna dira haren ezaugarri nagusiak. Horrekin agerian geratu da

RETAk etengabeko bilakaera duen merkatuaren beharretara egokitzen jakin duela, horixe baita, hain zuzen ere, Interneten kasua.

Horri guztiari esker, webguneak kirol-modalitate bakoitzean apustuak egiteko eskaintzarik handiena eskaintzen du: futbolean, saskibaloian, tenisean, pilotan, 1 formulan, MotoGPan eta abarretan. Erabiltzaileak kirol-txapelketa handietan apustuak egiteaz gain, RETAbet.es-en bidez tokiko taldeen eta txapelketen inguruko apustuak egiteko aukera ere izango du.

Gainera, RETAbet.es-ek kirol-apustuen webguneetan berrikuntza bat ekarri du; izan ere, RETA txartela erabiltzailearen kontuarekin lotzeko aukera eskaintzen du webgunean modu bizkorrean eta errazean. Horri esker, RETA txartela, RETA terminaletan egindako apustuetan pilotutako sariak berehala trukatzeko edo eskuratzeko euskarri eroso eta segurua izateaz gain, RETAbet.es webgunean apustuak egiteko garaian erabiltzailearentzako abantaila osagarri bihurtu da. Izan ere, txartelean pilotutako saldoa erakunde hauetako edozein kutxazainetan atera daiteke: BBK, Kutxa, Vital Kutxa edo Nafarroako Rural Kutxa.

Kobratzeko eta ordaintzeko baliabideei dagokienez eskaintzen duen berrikuntzak bereizten du RETAbet.es gainerako lehiakideengandik.

RETAbet.es kaleratu izanak erronka berria ekarri du RETA markarentzat etengabe hobetzea xede duen bere proiektu irmoaren baitan. Proiektu horrek etengabeko hazkundera lortu du lanean daramatzen lau urteotan.

